

DANTZA DANZA  
**ELIPSIK**

Arte Eszenikoen Zikloa Ciclo de Artes Escénicas  
Komisarioa Comisaria: Isabel de Naverán



Elipsiak, Isabel de Naveránek komisariatutako dantza-zikloaren hirugarren edizioan, Estatuko eta nazioarteko artisten pieza koreografikoak aurkeztu, eta ikusleei zabaldutako elkarrizketak eta hitzaldiak izango dira.

2016. urtean abiatu zenetik Elipsiak zikloak ikuspegi kontzeptual berezia du ardatz, erakutsi nahi baitu nola lantzen diren hainbat gai dantzaren arlotik: arte eta pentsamendu kritiko garaikidearen berezko interesekin gurutzatzen direnak eta haien berri ematen dutenak. Elipsiaren erretorika erabiliz, zikloak hauteman nahi ditu garai, ingurune sozial eta geografia desberdinetan garatutako gorputz-tekniken artean dauden lotuneak. Horrela, espazio bat ireki nahi du, iragankorra denak irauteko duen gaitasunaz, gorputz-transmisioaz, ahozkotasunaz eta transferentzia fisikoaren eta presentziaren ideiez hausnartzeko.

Elipsiak, el ciclo de danza comisariado por Isabel de Naverán, presenta en su tercera edición piezas coreográficas de artistas estatales e internacionales y ofrece conversaciones y coloquios abiertos al público.

Desde su inicio en 2016, Elipsiak se rige por un enfoque conceptual específico que busca mostrar cómo desde el hacer de la danza se abordan cuestiones que informan y se cruzan con intereses propios del arte y del pensamiento crítico contemporáneo. Utilizando la figura retórica de la elipsis, el ciclo trata de detectar zonas de conexión entre técnicas corporales desarrolladas en distintas épocas, contextos sociales y geografías, para abrir un espacio en el que reflexionar en torno a la capacidad de permanencia de lo efímero, a la transmisión corporal, a la oralidad y a las ideas de transferencia física y de presencia.

Asteazkena, urriak 17 de octubre, miércoles  
Osteguna, azaroak 8 eta 29 de noviembre, jueves  
JOZ 2 CAC 2, 20:00  
8€ / 6€: pieza 1 pieza  
15€: Elipsiak Zikloa Ciclo (3 pieza piezas)  
Sarrerak Entradas: Infopuntua / www.azkunazentroa.eus



Asteazkena, urriak 17 de octubre, miércoles

AIMAR PÉREZ-GALÍ  
*A post-believe manifesto: Delta & Accumulating*



Osteguna, azaroak 8 de noviembre, jueves

OLA MACIEJEWSKA  
*Loie Fuller: Research*



Osteguna, azaroak 29 de noviembre, jueves

NAZARIO DÍAZ  
*Háblame cuerpo (Looking for Pepe)*

DANTZA DANZA  
**JÉRÔME BEL**

Frantziako dantza kontzeptualaren ordezkariarik behinena den Jérôme Bel koreografoa datorkigu Az-ra *Jérôme Bel* izeneko piezarekin (1995). Lan horren bidez, dantzari —edo dantza ezari—buruzko ikerketa-ildo berriak eta jorratzeko espazio interesgarriak pausatuta zituen agertoki gainean.

Auzitan jarri zituen Belek errepresentazioan, birtuosismoan eta ikusleak hartzen duen lekuan finkatutako kodeak. Haren obrak ludikoak eta probokatzaileak izaten dira, eta ez dute inor hotz uzten.

El coreógrafo francés Jérôme Bel, el máximo exponente de la danza conceptual francesa, llega a Azkuna Zentroa con *Jérôme Bel* (1995), pieza con la que puso sobre el escenario nuevas líneas de investigación sobre la danza —o la no danza— e interesantes espacios para el comentario.

Bel cuestiona los códigos establecidos de la representación, el virtuosismo y el lugar ocupado por la persona espectadora. Sus obras, lúdicas y provocadoras, no dejan a nadie indiferente.



Jérôme Belen lanek (Montpellier, 1964) dantzaren inguruan pentsatzeko eta mugak hausteko ahalegina iradokitzen dute. Hasierako piezekin hasita –solo eta duo formatuko pieza oso minimalistak baitziren–, haren eboluzioa finkatutako jokalekua haustearekin lotu izan da beti, planteamendu eszenikoen arloan. Orobat, beste rol batzuk bilatu eta irudikatu izan ditu koreografoarentzat, interpreteentzat eta, horren ondorioz, ikusleentzat: haren eskemen aurrean lekuz kanpo kokatzen zituen beti ikusleak, eta alde zuzeneko kokapenarekiko 'buruaren berrantolaketa' jarrera onartzera behartzen.

La Fundación aretoak antolatutako Dantzaren Nazioarteko Jaialdiak aurkeztuko du artista frantsesa (urriak 4, 20:00, Az); 1998an ere izan zen Bilbon, ez-dantzaren eta dantza kontzeptual frantsesaren eztanda bete-betean. Honela azaldu dute Dantzaldian: «Garai hartan erabateko aurkikuntza izan zen: errepresentazioan eta ikusleak hartzen duen lekuan finkatutako kode guztiak eztabaidan jarriz, koreografoaren eginkizuna lausotuz eta hark oinarritzat darabilen kontzeptuari eta arrazoibideari protagonismoa emanez, Jérôme Belek bide bat ireki zuen. Bide horrek era askotako garapenak izan ditu harrez geroztik, nazioarteko eragin-esparru zabalean».

Dantzaldirako *Jérôme Bel* (1995) hautatzeak berriro 'jatorrizkoa' erakustea esan nahi du, denboraren ikuspegitik, sortzaileei edo ikusleei ezagutza zuzena helarazteko, eta eszenako hainbeste sortzailei hainbeste eragin dien ildo artistiko horri buruz egin daitekeen gogoeta bat abiarazteko.

Piezak «sintonia handia du espazioaren arimarekin, Azkuna Zentroaren sorkuntza garaikiderik gaurkoena gauzatzeko», nabarmentzen du La Fundación-ek.



JÉRÔME BEL (Montpellier, 1964)

Dantzari eta koreografo hau ez-dantza mugimenduaren ordezkariak behinenetako bat da. Haren piezek izaera kontzeptuala dute, eta antzerki, ahozko eta egunerokotasuneko giroaren artean mugitzen dira.

Bere lehen pieza sortu zuen 1994an, *Nom donné par l'auteur. Jérôme Bel* (1995), *Shirtologie* (1997), *Le dernier spectacle* (1998), *The show must go on* (2001), *Véronique Doisneau* (2004) eta *Lutz Förster* (2009) obrek osatzen dute Bel-en lana, dantza hausnartzeko bulkadaren azpian mugak aldatzen dituena.

Los trabajos de Jérôme Bel (Montpellier, 1964) sugieren un esfuerzo por pensar la danza y transgredir sus límites. Desde las piezas iniciales, muy minimalistas incluso en el formato: solos y dúos, su evolución ha tenido que ver siempre con la ruptura del marco establecido a nivel de los planteamientos escénicos y con la búsqueda y conceptualización de otros roles para el coreógrafo, los intérpretes, y como consecuencia, para el público, siempre descolocado ante sus propios esquemas y obligado a tomar una actitud de 'reorganización mental' de esos previos.

El Festival Internacional de Danza, organizado por La Fundación, presenta al artista (4 de octubre, 20:00h, Az) que ya visitó Bilbao en 1998, en plena explosión de la no danza y la danza conceptual francesa. «Entonces era un descubrimiento absoluto: cuestionando todos los códigos establecidos de la representación y del lugar ocupado por el espectador; difuminando el papel del coreógrafo y dando protagonismo al concepto y al discurso que lo apoya, Jérôme Bel abría una vía que ha tenido muy diversos desarrollos posteriores, en un radio de influencia internacional», explican desde Dantzaldia.

La elección de *Jérôme Bel* (1995) para el Dantzaldia significa volver a mostrar 'el original', desde una perspectiva de arco temporal para poder aportar conocimiento directo a creadores y público y para una posible reflexión sobre esta línea artística que ha influenciado tanto a tantos creadores de la escena.

La pieza «está muy en sintonía con alma de espacio para la creación contemporánea más actual de Azkuna Zentroa», destacan desde La Fundación.

Bailarín y coreógrafo, es uno de los representantes más destacados del movimiento de la no-danza. Sus piezas, de carácter conceptual, se mueven entre lo teatral, lo verbal y lo cotidiano.

Crea su primera pieza en 1994, *Nom donné par l'auteur. Jérôme Bel* (1995), *Shirtologie* (1997), *Le dernier spectacle* (1998), *The show must go on* (2001), *Véronique Doisneau* (2004) o *Lutz Förster* (2009) completan un trabajo que modifica sus límites bajo el impulso de pensar la danza.

## Jérôme Bel (1995)



*Jérôme Bel* (1995) lanean, bi gizonak eta bi emakumeak eragin-trukea dute beren gorputzekin, eta objektu ezezagunak balira bezala esploratzen dituzte. Sorkuntza-lan honek ez-dantza jarri zuen abian, muga oro ukatzen eta antzerkiaren helburua eztabaidan jartzen duen modalitate.

«Dantzak gorputzak behar ditu, ahal dela gizon eta emakumeenak, humanitatea, musika eta argia islatzen dituztenak. Erabaki nuen gorputzak biluztea, musika ere biluztea, eta ahotsa baizik ez uztea, zuzenean entzun zedin. Argia ere biluzi nahi nuen, eta eguzkia erabili, baina, era horretan, zaila izango zen antzokietan aritzea; beraz, lehenengo argi artifiziala aukeratu nuen, Edisonen bonbilla», horrela azaldu zuen koreografoak 2005ean egindako elkarrizketa batean.

*Jérôme Bel* (1995) pieza 1994tik 2004ra bitartean egin zituen lehen lan batzuen zati bat da. Hor, Bel-ek koreografo gisa duen zeregina lausotu nahi du, eta beste elementu batzuk eraman nahi ditu lehen planora, hala nola kontzeptua eta horren oinarria den diskurtsoa.

En *Jérôme Bel* (1995) dos hombres y dos mujeres interactúan con sus cuerpos y los exploran como si se trataran de objetos desconocidos. Esta creación marcó el inicio de la no-danza, una modalidad que reniega de cualquier límite y se cuestiona cuál es la finalidad del teatro.

«La danza necesita cuerpos, preferiblemente de hombres y mujeres, que reflejen humanidad, música e iluminación. Decidí desnudar los cuerpos y desnudar también a la música dejando solo la voz, que sonara en vivo. Quería desnudar la luz también, usar el sol, pero de esa forma sería difícil actuar en los teatros, de modo que elegí la primera luz artificial, la bombilla de Edison», explicaba el coreógrafo en una entrevista en 2005.

*Jérôme Bel* (1995) forma parte de una primera serie de trabajos que realizó de 1994 a 2004, que se caracterizan por la intención de Bel de difuminar su papel como coreógrafo transfiriendo a un primer plano otros elementos como son el concepto y el discurso que lo apoya.

### FITXA ARTISTIKOA FICHA ARTÍSTICA:

**Piezaren egilea** Una pieza de: Jérôme Bel

**Estrenaldia** Estreno: Brusela, 1995eko irailean, Bellones-Brigittines jaialdian Bruselas, septiembre 1995, en el Festival Bellones-Brigittines

**Interpretazioa** Interpretación: Eric Affergan, Claire Haenni, Yaïr Barelli, Michèle Barges, Frédéric Seguet

**Ekoizpena** Producción: R. B. Jérôme Bel (Paris)

**Eskerronak** Agradecimientos: D.C.A. & La Ménagerie de Verre

**Jérôme Bel dantza konpainiak erakunde hauen laguntza dauka** Jérôme Bel Cia. de Danza cuenta con el apoyo de: Direction régionale des affaires culturelles d'Île-de-France - Ministère de la Culture et de la Communication Institut Français / Ministère des Affaires Etrangères / ONDA - Office National de Diffusion Artistique